

LANGILEAK ETA GOI-ZUZENDARITZAKO LANGILEEK JASOTAKO ZENBATEKOAK

Lanean jardun duen **batez besteko langile kopurua**, lanbide-kategorien arabera banatua, honako hau izan da:

Kategoria profesionala	2016		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Zuzendari nagusiak eta presidente exekutiboak	1,00	1,00	-
Gainerako zuzendariak eta kudeatzaileak	3,00	-	3,00
Kontabilitateko, administrazioko eta Bulegoetako bestelako enplegatuak	41,64	9,66	31,98
GUZTIRA	45,64	10,66	34,98

Sozietateko **goi-zuzendaritzako langileek** jasotako zenbatekoak honako hauek dira:

	2016 (€)
Soldata Gordina	91.960,26
Dietak joan-etorriengatik	6.041,80
GUZTIRA	98.002,06

Administrazio Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jasotzen eta, egungo zein iraganeko administrazio organoko kideei dagokienez, Sozietateak ez du pentsioak zein bizitza aseguru primak ordaintzeko inolako betebeharririk bereganatu. Krediturik zein horien aurrerapenik ere ez zaie eman.